

MARKINA-XEMEINGO ARRETXINAGAKO

I. TXARA TRAIL 2022

1. Data eta tokia

- a. I. Txara Trail lasterketa urriaren 2an izango da, goizeko 9:30ean, Markina-Xemeingo Arretxinaga auzoan (Bizkaia). Helmuga ere leku berean izango da.

2. Ibilbideak

- a. Lasterketa laburrak 11,7 kilometro izango ditu, eta 625 metroko desnibel positiboa.
- b. Lasterketa luzeak 18,4 kilometro izango ditu, eta 1.125 metroko desnibel positiboa.
- c. Eguraldi euritsua egiten badu, *grip* edo tako handidun oinetakoak eramatea gomendatzen da.

3. Parte-hartzaileak

- a. 200 korrikalariko muga ezarriko da: hasiera batean, 100 korrikalari laburrerako eta 100 luzerako. Bietako bat betetzen ez baldin bada, beste distantzian muga handituko genuke, 200 parte-hartzailetara iritsi arte.
- b. 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du, eta 15 urtetik gorakoek ere bai, gurasoen edo legezko tutoreen baimenarekin.

4. Izen-emateak

- a. Herrikrosa plataforman (www.herrikrosa.eus) eman ahal izango da izena uztailaren 1etik irailaren 25eko gaueko 23:59ak arte.
- b. 200 korrikalariko muga gaindituz gero, ondorengoak itxaron-zerrendan sartuko dira. Ondoren, izena emandakoren batek baja ematen badu, itxaron-zerrendakoei deituko zaie, izen-emate ordenaren arabera.
- c. Izen-ematea egiteko, lasterketa luzekoek 20 euro eta laburrekoek 15 euro ordaindu beharko dituzte.
- d. Abuztuaren 30etik aurrera ez da dirurik itzuliko. Epe horretatik aurrera, dirua itzultzeko salbuespena egingo da, baldin eta ziurtagiria aurkezten bada (laneko bajaren txostena, medikuaren txostena,...).

5. Derrigorrezko materiala

- a. Edalontzi biguna edo *soft flask*-a
- b. Mugikorra

6. Dortsalen banaketa eta kontsigna-zerbitzua

- a. Arretxinagako aterpean banatuko dira dortsalak, 8:00etatik 9:10era arte.
- b. Aterpean bertan, motxilak kontsignan uzteko aukera egongo da

7. Irteera

- a. Lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago irteera-puntura hurbildu beharko dute korrikalariak, eta boluntarioek korrikalari bakoitzak derrigorrezko materiala baduela ziurtatuko dute.

8. Denbora-muga

- a. Ibilbide luzeko lehen korrikalariak 2 ordu azpitik bukatuko dutela kontuan izanik, denbora-muga 4 ordukoa izango da; hau da, 13:30ean ezarriko da muga. Korrikalariak denbora-muga hori gainditzen baldin badute, dortsala kenduta jarrai dezakete ibilbidea, eta betiere kontuan hartuz ordu horretatik aurrera ez direla kontrolatuko ez ibilgailuak eta ez bidegurutzeak.

9. Anoa-guneak

MARKINA-XEMEINGO ARRETXINAGAKO

I. TXARA TRAIL 2022

- a. Meaben iturri bat dago (4. km inguruan).
- b. Herribasoko pagadian (7,5 km), ura/isotonikoa eta fruta → Laburrekoen azken anoa-gunea izango da.
- c. Santa Eufemiko bolatokian, ura (11,5 km).
- d. Herribasoko pagadian (14,5 km), ura/isotonikoa eta fruta).
- e. Helmugan.
- f. Anoa-gunetan ura hartzeko, korrikalari bakoitzak bere edalontzi bigun edo *soft flask*a eraman beharko du.
- g. Anoa-gunetan edo inguruetan zabor-poltsak jarriko dira, edozein zabor (gelen plastikoak, edalontziak..) bertara botatzeko. Zaborra poltsa horietatik kanpo botatzen baldin bada, korrikalaria lasterketatik kanpo utz dezake antolakuntzak.

10. Helmugaratzea

- a. Oinetakoak eta hankak garbitzeko mangerak egongo dira.
- b. Dutzak kiroldegian? (obretan dago eta ez dakigu obrak bukatuta egongo diren).

11. Sari-banaketa

- a. 13:00etan banatuko dira sariak (edo, azken korrikalaria arinago heltzen bada, azken korrikalaria heldu ondoren), Arretxinagako plazan jarriko den eszenatokian.
- b. Bi lasterketetan honako sari hauek emango dira:
 - i. 1. emakume zein gizonezkoarentzat txapel bordatua eta oroigarria
 - ii. 2. emakume zein gizonezkoarentzat oroigarria
 - iii. 3. emakume zein gizonezkoarentzat oroigarria